

Abarrak

MIKEL GARCIA

Elur-bola

BI MOTATAKO SARIAK daudela irakurri nion Mauro Entrialgo komikilariari bere zintetako batean: batetik saritua goratzeko eta ezagun(ago) egiteko ematen direnak, eta bestetik saria ematen duen jaialdia bera goratzeko eta ezagun(ago) egiteko ematen direnak –bestela nolatan Donostia Saria Richard Gere edo Julia Roberts-iz?–.

Mundu korapilatsua da sariena. Zeinek, zergatik, nori, nola... ematen dituzten sariak, kasuan kasuko gogoeta kritikomaliziosoa eskatzen duen afera da, baina elur-bola efektua ageriko fenomeno da trofeorako lehian: diruak diru gehiago erakartzen duen moduan, zenbat eta jaialdi gehiagotan aritu –eta saritu–, orduan eta handiagoa da beste jaialditan parte hartzeko –eta irabazteko– aukera... errekorren Guinness saria lortzeraino. Bai, hala gertatu zaio Lucas Figueroa argentinarren *Porque hay cosas que nunca se olvidan* (porquehaycosasquenuncaseolvidan.com) film laburrari. Jaialdiz jaialdi ibili da, eta 300 garaikur inguru eskuratu ostean, historiako labur sarituenaren Guinness saria eman diote. Eta ondo dago ume italiar futbolzale batzuen istorio hau; bizilagunak –baloi ostikoez nazkatuta dagoen emakume zaharrak– baloia zulatuko die eta mendekua prestatuko dute hurrek. Ondo dago, bai, baina ez historiako sari gehien merezi izateko adina. Esango nuke –publizitate subliminala eginez, bide batez– ARGIaren webgunean bertan labur hobek aurki ditzakezula.

Euskal zinemagile ezagun batek duela gutxi aitortu zidan ez dagoela ziur jaialdiek bere film laburrak hautatzen ote dituzten onak direlako, edo dagoeneko izen bat duelako. Bietatik izango da, seguruen, egilearen itzala luzea baita edozein obratan, eta krudela da zirkuitua: betikoak betiketzen eta hauspotzen ditu, jaialdi batetik bestera, eta kanpoan uzten du gurpilean sartzea lortzen ez duena. Zeinek zioen saria irabaztea ezetz, maila gorenean mantentzea zela zaiena? Lucas Figueroa oraindik harrituta dago Guinnessarekin: “Arraroa da, sari bat eman didate sariak jasotzeagatik”. Eta handituz doa elur-bola. ■



Porque hay cosas que nunca se olvidan
film laburreko eszena.

Vitoria-Gasteiz
WG

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

ATARIA

- **Bidala naturalistei buruzko hitzaldia**
Otsailak 17, 19:00.
- **Hezeguneen Nazioarteko Eguna**
Haurrentzako jarduerak.
Otsailak 6, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.
- **Baso Igel jauzkaria ikusteko gaueko bisita**
Otsailak 11, 19:00-21:00.

MONTEHERMOSO

- **BESTE INAGURAZIO BAT**
Familiarentzako jarduerak. Otsailak 12, 18:00-19:30.
Erakusketa tailerra, bisita... Bapatean zirko Taldea.
- **MATINÉ (haur eta gazteentzako zinema)**
Noémie. Otsailak 13, 11:15.
Abeltzainaren alaba. Otsailak 27, 11:15.

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN

Gonbit-txartelak astebete lehenago.

ARRIAGA

- **Sakanako ihoteak**
Otsailak 28, 19:00. Bideo-dokum. Gazte eta helduak.

JUDIMENDI

- **Lur eta Ortziaren artean. Euskal mitologia**
Otsailak 9, 18:30. Hitzaldia. Gazte eta helduak.
- **Inauterietako makillaje efektu bereziak**
Otsailak 26, 11:00. Lantegia. Gazte eta helduak.

IPARRALDE

- **Himalaya ezezaguna**
Otsailak 16, 19:00. Hitzaldi-proiek. Gazte eta helduak.
- **Kimika eginez**
Otsailak 19, 11:00. Lantegia. Adina: 6-12.

PILAR

- **Inauterietako makillaje efektu bereziak**
Martxoak 1, 18:00 Lantegia. Gazte eta helduak.

ABETXUKO

- **Galaxietako liburutegia. Lantegia**
Otsailak 12, 11:00 (adina 4-6); 12:00 (adina 7-9).
- **Bi azeritxo estu eta larri**
Otsailak 24, 18:00. Lantegia. Adina: 4-8.

IBAIONDO

- **Telo: harresian kontatuko dizut. Txotxongiloak**
Otsailak 8, 17:30 (adina: 3-5) eta 18:30 (adina: 6-8).
- **NURekin topaketa**
Martxoak 1, 19:00. Adina: 7-12.

LAKUA

- **Bi azeritxo estu eta larri**
Otsailak 22, 18:00. Lantegia. Adina: 4-8.

**Etorri eta gozatu
gurekin!**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala